

5/2013 FORU ARAUA, ekainaren 12koa, Bizkaiko Toki-Erakundeen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa (BAO Ekainaren 19koa)

Bizkaiko Batzar Nagusiek, 2013ko ekainaren 12ko Osoko Bilkuran, Bizkaiko toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko ekainaren 12ko 5/2013 Foru Araua onartu dutela jakinarazten dut, eta nik foru arau hori aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

5/2013 FORU ARAUA, EKAINAREN 12KOA, BIZKAIKO TOKI-ERAKUNDEEN AURREKONTU-EGONKORTASUNARI ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNARI BURUZKOA.

HITZAURREA

Konstituzioan sagaratu egin da aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa, 1978ko Konstituzioaren 135. artikuluari 2011ko irailaren 27an egindako aldaketaren bidez, eta, ondorioz, administrazio publiko guztiak behartuta daude beren jardunak printzipio hori lortzeko egokitzera, kontu eta aurrekontu publikoen finantzairaukortsun etengabea bermatzearen.

Botere publikoen aurrekontu-politikak bete beharreko printzipioen garapena Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2012ko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren bidez egin da Estatuan. Eta lege horretako azken xedapenetan hirugarrenean, bigarren lerroaldean, ezartzen da lege horretan xedatutakoa Euskal Autonomia Erkidegoari aplikatzeko garaian, beraren foru-araubidea dela-eta, Ekonomia Itunari buruzko Legean xedatutakoa beteko dela; horrela, errespetatu egingo da Autonomia Estatuaren 41. artikuluan EAEren eta Estatuaren arteko finantza-harremanak arautzeko sagaritzen den esparrua.

Hori dela eta, indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen 2012ko maiatzaren 23ko 12/2002 Legeko 48. artikuluan ezartzen da zein izango den Estatuaren eta EAEren arteko finantza-harremanak arautuko dituzten printzipio orokorretako bat: aurrekontu-egonkortasunaren arloan, Euskadiko erakundeak Estatuarekin koordinatzea eta harekin lankidetzan aritzea. Horrela, Legeko 62. artikulua ezartzen du Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren eginkizunetako bat izango dela aurrekontu-egonkortasunaren arloko lankidetzeta eta koordinazioari buruzko konpromisoak erabakitzea.

Euskal tokiko sektore publikoa osatzen duten erakundeek eta, bereziki, Bizkaikoekin ezin diote iskin egin aurrekontu-egonkortasunaren arloan dituzten konpromisoek dakartzaten betebeharrak aplikatzeari; baina betebeharrak horiek beren esparru juridikoan sartzeko orduan errespetatu egin behar da erakunde bakoitzaren antolaketa- eta funtzionamendu-arauek zehazten duen eskumenen banaketa, zeinak lurralde historikoetako foru organoei ematen baitizkie finantzen gaineko babes-ahalmena. Berezi, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 7. artikulua Bizkaiko Batzar Nagusiei ematen die toki-korporazioen finantza-babeserako erregimen orokorra onesteko eskumena.

Foru arau honen xedea, hortaz, Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeen aurrekontu-oreka eta finantza-iraunkortasuna bermatzea da, haiek bermatzea funtsezko faktorea baita hazkunde ekonomikoa bultzatzeko eta, azken finean, zerbitzu hobek eta modu iraunkorrean emateko herritarrei. Nolanahi ere, prozedura malgutzeko zenbait elementu ere jasotzen dira, aurrekontu-orekako helburuari kalte egiten ez diotenak, baina aukera ematen dutenak hazkunde hori bultzatu ahal izateko tresna eraginkorrak emateko toki-erakundeek.

Foru arau hau eduki hauen inguruan egituratzen da: helburua eta aplikazio-eremua; zenbait neurri, Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeek aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak eta gastu-araua modu eraginkorrean betetzen dituztela bermatzeko; toki-erakundeen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren printzipioa garatzea, Lurralde Historikoko udalerrien gardentasun ekonomiko-finantzarioa hobetzeko; plan ekonomiko- finantzarioei lotutako prozedurako zenbait berezitasun eta kasu bakoitzean egin behar den jarraipena.

1. artikulua. Helburua eta aplikazio-eremua.

1. Foru arau honen helburua da Bizkaiko tokiko sektore publikoaren finantzen gaineko babes-araubidea garatzea, aurrekontuegonkortasunari dagokionez, eta beharrezkoak diren prozedurak ezartzea toki-erakundeetan benetan aplikatzeko aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2012ko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak administrazio publiko guztientzat ezarritako printzipioen esparruan.
2. Foru arau honen aplikazio-eremua hau da: Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistema arautzen duen Europar Batasuneko Zuzenbidearekin bat toki-korporazioak izeneko azpisektorean sartuta dauden Bizkaiko udal eta mankomunitate guztiak eta haien menpeko erakunde guztiak
3. Toki-erakunde bakoitzean egiaztatu behar da ea foru arau honetan ezarritako helburuak betetzen diren. Egiaztatze-lan hori egin behar da, hain zuzen ere, erakundearen kontuak Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistema arautzen duen Europar Batasuneko Zuzenbidean jasotakoaren arabera bateratu ondoren.

2. artikulua. Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa eraginkorra izateko neurriak.

1. Bizkaiko toki-erakundeek aurrekontu-egonkortasuneko helburua bete behar dute, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluan hartzen diren erabakien esparruan, EAeko administrazio publiko guztientzat Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan Estatuarekin adosten diren akordioak ikusita.

Aurrekoa gorabehera, aurrekontu-egonkortasuneko helburu hori betetzat joko da, baldin eta toki-erakundeak aurrekontu-oreka edo aurrekontuko superabita badu.

2. Aurrekontu-egonkortasuneko helburua bete behar da bai aurrekontuak prestatzeko prozeduran, bai haiek onartu eta gauzatzeko. Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeek aurrekontu-gauzatzeari buruzko datuen jarraipena egin eta gastu publikoa doitu behar dute, ekitaldia ixten denean ez dadin bete gabe geratu aurrekontu-orekako helburua.
3. Aurrekontu-orekako helburua ez betetzeko arriskua ikusten bada, Bizkaiko Foru Aldundiak ohartarazpen arrazoitua egingo dio arrisku horren erantzule den toki-erakundeari, hari entzunaldia eskaini ondoren.
4. Ohartarazitako erakundeak hiru hilabeteko epea izango du aurrekontu-orekako helburua ez betetzeko arriskua saihesteko beharrezkoak diren neurriak hartzeko. Neurriok epe horren barruan bertan jakinarazi behar zaizkio Bizkaiko Foru Aldundiari. Neurriok hartu ezean edo Foru Aldundiak irizten badio ez direla nahikoak arriskua zuzentzeko, foru arau honetako 4.2 eta 6. artikuluetan jasotzen diren neurri zuzentzaileak aplikatu ahal izango ditu Aldundiak.

3. artikulua. Gastu-araua aplikatzea.

1. Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemaren arabera definitutako erabilera ez-finantzarioen urtetik urterako aldaketa –zorraren interesak eta Europar Batasunaren edo veste administrazio publiko batzuen edo hirigintza-kudeaketaren funts finalistekin finantzatutako gastua kenduta– ezingo da izan Finantza Publikoen Euskal Kontseiluan erabakitako erreferentzia-tasa baino handiagoa.

2. Diru-bilketaren etengabeko gehikuntzak eragiten dituzten aldaketa normatiboak onartzen badira, edo diru-bilketan eragin positiboa eta irauteko bokazioa duten kudeaketako edo ikuskaritzako neurriak aplikatzen badira, gastu-araua diru-bilketaren gehikuntza gertatzen den urteetan aplikatuz ateratzen den gastu konputagarria aldaketak eragindako gehikuntzaren beste gehitu ahal izango da. Diru-bilketaren gutxitzeak eragiten dituzten aldaketa normatiboak onartzen badira, edo diru-bilketan eragin negatiboa duten kudeaketako edo ikuskaritzako neurriak aplikatzen badira, gastu-araua diru-bilketaren gutxitzea gertatzen den urteetan aplikatuz ateratzen den gastu konputagarria aldaketak eragindako gutxitzearen veste gutxitu ahal izango da.
3. Epe luzerako zor-eragiketen ondoriozko kapital bizia duten toki-erakundeek kasuan, ekitaldian zehar sarrera ez finalista berriak biltzen badituzte edo bildutakoak aurrez ikusitakoak baino handiagoak badira, eta gainerako sarrerak normaltasunez gauzatzen badira, zuhertasun erizpidea erabilita eta, beraz, diruzaintzako beharrezan egon gabe, orduan aurreko beste sarrera horiek zorra gutxitzeko erabili beharko dituzte, araudiz ezar dadin portzentajearen arabera, edo aurrekontuan aurreikusita dauden beste zorpetze-eragiketa batzuk saihestera. Edonola ere, ekitaldia itxi arte itxaron daiteke. Aipatutako xedapen horren arabera zorra gutxitzeko edo aurreikusita dauden beste zorpetze-eragiketa batzuk saihesteko erabili behar ez diren zenbatekoak, Toki Erakundeak egoki irizitako aurrekontu alderazpenak finantzatzeko baliabidetzat erabili ditzake.
4. Epe luzerako zor-eragiketen ondoriozko kapital bizia duten toki-erakundeek kasuan, ekitaldia ixten dutenean finantzaketa- ahalmena geratzen bazaie, Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemak emandako definizioaren arabera, zorpetze garbia gutxitzeko erabili beharko dute zenbateko hori, araudiz ezar dadinaren arabera. Nolanahi ere, gutxitzearen zenbatekoa ezin da inoiz handiagoa izan gastu orokorretarako dagoen diruzaintzako geldikina baino handiagoa, xedatu diren baina justifikatutako arrazoiengatik haien gaineko betebeharra hartu ezin izan den gastuei dagozkien kredituen geldikinak erantsi ondoren.

Aipatutako xedapen horren arabera zorra gutxitzeko erabili behar ez diren zenbatekoak, Toki Erakundeak egoki irizitako aurrekontu alderazpenak finantzatzeko baliabidetzat erabili ditzake.
5. Gastu-araua ez betetzeko arriskua ikusten bada, Bizkaiko Foru Aldundiak ohartarazpen arrazoitua egingo dio arrisku horren erantzule den korporazioari, hari entzunaldia eskaini ondoren.
6. Ohartarazitako korporazioak hiru hilabeteko epea izango du gastu-araua ez betetzeko arriskua saihesteko beharrezkoak diren neurriak hartzeko. Neurriok epe horren barruan bertan jakinarazi behar zaizkio Bizkaiko Foru Aldundiari. Neurriok hartu ezean edo Foru Aldundiak irizten badio ez direla nahikoak arriskua zuzentzeko, foru arau honetako 4.2 eta 6. artikuluetan jasotzen diren neurri zuzentzaileak aplikatu ahal izango ditu Aldundiak.

4. artikulua. Finantza-iraunkortasunaren printzipioaren bideratzea.

1. Finantza-iraunkortasuna hau dela ulertuko da: oraingo eta etorkizuneko gastu-konpromisoak finantzatzeko ahalmena, defizitaren, zor publikoaren eta zor komertzialaren berankortasunaren mugen barruan eta indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera. Finantza-iraunkortasunaren printzipioa bete dadin, finantza-eragiketak finantza-neurritasunaren printzipioaren pean egongo dira.
2. Bizkaiko Foru Aldundiak zehaztuko du Bizkaiko toki-erakundeek zor publikoaren maila, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluan hartzen diren erabakiak kontuan hartuta.
3. Bizkaiko Foru Aldundiak toki-erakundeek kreditu-eragiketei buruz ematen duen baimen-araubideak edo nahitaezko txosten ez-lotesleak bat etorri behar du bai Toki Ogasunei buruzko 2005eko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauko 55. artikuluan ezarritakoarekin, bai toki-erakundeek krediturako duten sarbidea urtero arautzen duten Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrekontuei buruzko foru arauetan ezarritakoarekin. Bizkaiko Foru Aldundiak

toki-erakundeen kreditu-eragiketei buruz ematen duen baimenak edo nahitaezko txosten ez-lotesleak kontuan hartu behar du ea betetzen diren ala ez aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudi orokorretik eta foru arau honetatik ondorioztatzen diren printzipio eta betebeharrak.

4. Zuzenbidezko 75.000 biztanle edo gehiago dituzten erakundeetako batek ez badu betetzen aurrekontu-egonkortasuneko edo zor publikoko helburua, helburua betetzen ez duen toki-erakundearen epe luzerako zorpetze-eragiketa guztiek Bizkaiko Foru Aldundiaren baimena beharko dute.
5. Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeek zaindu behar dute ea gastu-konpromisoak hartzeko duten erritmoa ondo egokitzen zaion diruzaintzako planaren gauzatzeari, eta plan horietan jasoko dituzte, batetik, ordaintzen aurreikuspenak -berankortasunari buruzko araudian ezarritako epeekin bat datozenak-, eta, bestetik, diruzaintzako eragiketak, eta argitaratu egin behar dute batez besteko zer epe duten beren hornitzaileei ordaintzeko.

Toki-erakundeko kontu-hartzaileak hiru hilerik behin egingo du ordaintzeko batez besteko epearen jarraipena, zuzenbidezko 75.000 biztanle edo gehiago dituzten erakundeetan izan ezik, haietan hilerio egingo baita jarraipen hori.

6. Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea, argitaratutako datuen arabera, luzeagoa bada berankortasunari buruzko araudian aurrez ikusitako gehieneko epea baino, toki-erakundeak egokitu egin beharko du bere diruzaintzako plana, eta adierazi beharko du hilerio zenbat baliabide erabiliko dituen hornitzaileei ordaintzeko eta zer neurri hartuko dituen hornitzaileei ordaintzeko duen batez besteko epea berankortasunari buruzko araudian aurrez ikusitako gehieneko epeari egokitzeko; neurriok kuantifikatuta adierazi behar ditu.
7. Aurreko 6. zenbakian adierazitakoaren kalterik gabe, zuzenbidezko 75.000 biztanle edo gehiago dituzten erakundeetan kontu-hartzaileetako eginkizunak betetzen dituen organoak ikusten badu hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak, hil bitan jarraian, 30 egun baino gehiagoan gainditzen badu berankortasunari buruzko araudian ezarritako gehieneko epea, diruzaintzako plana aurreko zenbakian zehaztutakoaren arabera egokitu duenetik zenbatzen hasita, bada, orduan, organo horrek, hamabost eguneko epean, egoera horren berri eman behar die Gobernu-batzarrari eta Bizkaiko Foru Aldundian finantza-tutoretzari dagokionez eskuduna den sailari. Toki-erakundeak, ofizioz edo Bizkaiko Foru Aldundiak eskatuta, beharrezko neurriak hartuko ditu berankortasunari buruzko araudian aurrez ikusitako gehieneko epeari egokitzeko hornitzaileei ordaintzeko duen batez besteko epea.
8. Zor publikoko helburua ez betetzeko arriskua ikusten bada, Bizkaiko Foru Aldundiak ohartarazpen arrazoitua egingo dio toki-erakundeari, hari entzunaldia eskaini ondoren.
9. Ohartarazitako korporazioak hiru hilabeteko epea izango du zor publikoko helburua ez betetzeko arriskua saihesteko beharrezkoak diren neurriak hartzeko. Neurriok epe horren barruan bertan jakinarazi behar zaizkio Bizkaiko Foru Aldundiari. Neurriok hartu ezean edo Foru Aldundiak irizten badio ez direla nahikoak arriskua zuzentzeko, foru arau honetako aurreko 4 zenbakian eta 6. artikuluan jasotzen diren neurri zuzentzaileak aplikatu ahal izango ditu Aldundiak.

5. artikulua. Lankidetzaren printzipioa aplikatzea, gardentasuna hobetzeko.

1. Bizkaiko Foru Aldundiak arlo ekonomiko-finantzarioari dagokionez eta, zehatzago, toki-erakundeen finantza-babesari dagokionez dituen eskumenak erabiliz, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak betetzen direla zainduko du.
2. Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakaritza Sailak publikoaren eskura jarriko du foru arau honen aplikazio-eremuan dauden subjektuei buruzko informazio ekonomiko-finantzarioa.
3. Bizkaiko Foru Aldundiak, toki-erakundeen gaineko finantza-tutoretzako eskumena erabiliz, txosten bat prestatu behar du urtero, non jaso behar duen Bizkaiko Lurralde Historikoko

toki-erakundeek zenbateraino betetzen dituzten aurrekontu-egonkortasuna, zorra eta hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea direla-eta ezarrita dauden helburuak nahiz gastu-araua, eta txosten hori Batzar Nagusiei helaraziko die.

6. artikulua. Plan ekonomiko-finantzarioa.

1. Toki-erakunde batek aurrekontu-egonkortasuneko edo zor publikoko helburuak edo gastu-araua bete gabe prestatu, onetsi edo gauzaten baditu bere aurrekontuak, plan ekonomiko-finantzario bat prestatu beharko du, zeinak bermatu behar duen ez-betetzea gertatu den ekitaldian edo hurrengoan bete egingo direla helburu horiek eta gastu-araua.
2. Plana gehienez ere hilabete biko epean prestatu behar du, ez-betetzea kontu-hartzailearen txostenean jasotzen denetik zenbatuta, eta eduki hau izango du:
 - a) Ez-betetzearen arrazoiak.
 - b) Sarrera eta gastuen aurreikuspenak, kontabilitate nazionalaren arabera doituak, balizko hau jarrita: ez da aldaketarik gertatuko ez politika fiskaletan, ez gastuetan, ez eta aurreikuspenok egiteko oinarri moduan erabilitako balizkoetan ere.
 - c) Neurri zuzentzaile kuantifikatuak eta haiek aplikatzeko egutegia, bai eta haiek kontabilizatuko diren aurrekontu partidak edo aurrekontuz kanpoko erregistroak ere.
 - d) Zorraren, aurrezki gordinaren eta aurrezki garbiaren bilakaera, diruzaintzako saldoen zenbatespena, gastuei lotutako finantzaketaren soberakina eta gastu orokorretarako diruzaintzako geldikina.
 - e) Toki-erakundeak erabiltzen dituen eskumenen iraunkortasun-nari buruzko azterlana, berezko eskumenean eta eskuorde-tzearen bidez erabiltzen dituenena izan ezik.
 - f) Toki-erakundeak ematen dituen nahitaezko zerbitzuak finantzatzen dituzten sarreraren analisia.
 - g) Antolaketako egituraren eraginkortasunari buruzko azterketa.

Aurrekontu-egonkortasuneko helburua, zor publikoko helburua edo gastu-araua ez-betetzearen inguruko berezitasunek justifikatzen badute plan ekonomiko-finantzarioan ez sartzea aurreko e, f eta g atalak, orduan posible izango da atal horiek ez sartzea planaren edukia barruan, baldin eta hala jasotzen bada kontu-hartzailetzako eginkizunak betetzen dituen organoak emandako txosten batean.

Neurri osagarriak -behar badira- hartzeko behar den informazio osagarria eskatu ahal izango die Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenbidezko 75.000 biztanle edo gehiago dituzten udalei, 30 eguneko epean planaren proposamena jasotzen denetik aurrera.

Gainerako udalerrietan, berriz, Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetzan emango du plan ekonomiko-finantzarioak egiteko.

3. Bizkaiko Foru Aldundiak du zuzenbidezko 75.000 biztanle edo gehiago dituzten Bizkaiko toki-erakundeek aurkezten dituzten plan ekonomiko-finantzarioak onartzeko eskumena, planok aurkeztu eta hilabete biko epean, gehienez ere.

Gainerako toki-erakundeetan, berriz, aurrekontuak onartzeko eskumena duen organoak, indarrean dagoen araudiaren arabera, hartuko du Plan ekonomiko-finantzarioa onartzeko erabakia, planok aurkeztu eta hilabete biko epean.

4. Hala onartutako plan ekonomiko-finantzario bat hura onartu eta hilabetera jarri behar da martxan, gehienez ere.

5. Toki-erakunde batek zor publikoko helburua betetzen badu, baina ez badu betetzen edo egonkortasuneko helburua edo gastu-araua, diruzaintzako geldikinarekin finantzatu dituelako erakundearen finantza-iraunkortasuna arriskuan jartzen ez duten gastuak, bada, erakunde horrek, beti ere aurrekontua aurrezki garbi positiboarekin likidatzen badu, 3. artikuluko 4. zenbakian zehaztutakoaren kalterik gabe, kontu-hartzaitzako eginkizunak betetzen dituen organoaren txosten batekin ordezkatu ahal izango du plan ekonomiko-finantzarioa, eta txostenaren berri eman behar zaio beti Osoko Bilkurari.

Kontu-hartzaitzako eginkizunak betetzen dituen organoaren txosten horretan hauek zehaztuko dira:

- a) Finantzatzeko gastuek ez dutela erakundearen finantza-iraunkortasuna arriskuan jartzen.
- b) Aurreko urteko ekitaldiaren likidazioa gastu orokorretarako diruzaintza gerakinaren bitartez eta aurrezki garbi positiboaren bitartez egin dela.
- c) Urte bakoitzerako finkatutako zor helburua betetzen dela.
- d) Egonkortasuneko helburua edo gastu-araua ez duela betetzen, diruzaintzako geldikinarekin finantzatu dituelako erakundearen finantza-iraunkortasuna arriskuan jartzen ez duten gastuak.
- e) 3.4 artikuluan xedatutakoa, kasua bada, bete egiten dela.

Aurrekontuak onartzeagatiko finantzarioak ez diren erabilerek urteen artean izaniko ekitaldien arteko aldaketak kalkulatzeko, bada, ez dira deskontatuko diruzaintzako geldikinarekin finantzatutako gastuak.

6. Aurreko 5. zenbakian araututako kasuan, honako hauek bidali behar zaizkio Bizkaiko Foru Aldundian finantza-tutoretzari dagokionez eskuduna den sailari:
 - a) Kontu-hartzaitzako eginkizunak betetzen dituen organoak txosten horretan zehazten diren inguruabarrei buruz egindako txostena.
 - b) Idazkaritzako eginkizunak betetzen dituen organoak aurreko letrako txostena Osoko Bilkurari jakinarazteari buruz egindako ziurtagiria.

Bizkaiko Foru Aldundiak, 30 eguneko epean, beharrezkoa duen informazio osagarria eskatu ahal izango du, eta neurri osagarriak har daitezela ere eskatu ahal izango du; neurrian artean plan ekonomiko-finantzario bat prestatzeko betebeharra ezar liteke, toki-erakundearen iraunkortasun finantzarioa bermatzearen. Epe hori igaro bada, baina Bizkaiko Foru Aldundiak ez badu ebazpen espresurik eman, ulertuko da ez dela neurri osagarririk hartu behar.

7. artikulua. Plan ekonomiko-finantzarioen jarraipen-txostenak.

1. Bizkaiko Foru Aldundiak, sei hilean behin, zuzenbidezko 75.000 biztanle edo gehiago dituzten Bizkaiko toki-erakundeek onartutako plan ekonomiko-finantzarioen jarraipena egingo du. Gainerako toki-erakundeek kasuan, erakunde bakoitzeko kontu-hartzaitzak egingo du jarraipen-txostena, urtean behin. Jarraipen txosten horren berri eman behar zaio osoko bilkurari, horretarako egingo den informazio- saio batean, eta Bizkaiko Foru Aldundiari helarazi behar zaio, gehienez ere osoko bilkuran azaldu eta 15 egun balioduneko epean.
2. Jarraipen-txostenetan egiaztatzen bada desbideratzea egon dela neurriak aplikatzerakoan, desbideratze hori justifika dezala eskatuko dio Bizkaiko Foru Aldundiak toki-korporazioari, edo neurriak aplikatu ditzala, edo –beharrezkoa bada– helburuak betetzea bermatzeko beste neurri batzuk har ditzala ere bai.

3. Indarrean dagoen araudiak galdatzen duen plan ekonomiko-finantzarioa onartu ez bada edo, onartu arren ere, ez bada bete, edo hilabete biko epean ez bada bete aurreko 2. zenbakiaren arabera eskatutakoa, toki-erakundeko organo eskudunak adierazi beharko du kreditu batzuk xedaezinak izango direla, eskatutako hori betetzea bermatzeko besteko zenbatekoan, eta hala izango dira harik eta ezarritako helburua edo gastu-araua betetzea bermatzen duten neurriak hartu arte. Kreditu xedaezinen inguruko erabakia hartzen ez bada, Bizkaiko Foru Aldundian finantza-tutoretzari dagokionez eskuduna den sailak beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu toki-erakundea erabaki hori nahitaez hartzera behartzeko. Eta neurrian artean Udal Finantzaketarako Foru Funtsean (Udalkutxa) parte hartzeagatik toki-erakundeari dagozkion baliabideak atxikitzea egon daiteke, baina hartzen den neurria hartzen dela ere, neurri horrek ez du eragotzi behar toki-erakundeak bere langileei ordaindu ahal izatea, ez eta nahitaezko zerbitzu publikoak emateak eragiten dituen gastuak ordaindu ahal izatea ere.

8. artikulua. Urte askotarako inbertsio-proiektu estrategikoen finantzaketa.

1. Toki-erakunde batek urte askotarako inbertsio-proiektu estrategikoei egin behar badie aurre eta bere kapital bizi osoaren bolumenak gainditzen ez badu gainditzen kontabilitateko egoera bateratuen ondoriozko zifren arabera likidatu edo sortutako diru-sarrera arrunten %20, baina zor publikoko helburua beteta betiere, orduan Bizkaiko Foru Aldundiak, salbuespen moduan, baimendu ahal izango dio gehienez ere hiru urteko epean betetzea aurrekontu-egonkortasuneko helburua edo gastu-araua, toki-erakundeko aurrekontuak prestatzeko eskumena duen organoak epe ertainerako prestatutako aurrekontu-esparruarekin bat.
2. Aurreko lerroaldean zehazten diren kasuen justifikazioa tokierakundeak prestatu beharko duen memoria batean jaso behar dira. Bertan, arrazoitu egin beharko da zergatik den beharrezkoa urte askotarako inbertsio hori eta zer arrazoi dauden proiektu hori udalerrientzat estrategikotzat jotzeko; gainera, proiektu hori hiru urterako aurrekontu-esparruarekin koherentea dela justifikatzen duen aurrekontu eta finantza-informazio guztia jaso behar du txostenak.

Bizkaiko Foru Aldundiaren baimena Finantza Publikoen Euskal Kontseiluari jakinaraziko zaio, kasu bakoitzari buruz dagoen informazio guztiarekin bat.

9. artikulua. Zerbitzuen benetako kostua.

1. Bizkaiko toki-erakundeek erregelamendu bidez zehazten denaren arabera kalkulatu dute ematen dituzten zerbitzuen benetako kostua, aurrekontu orokorraren likidazioaren jasotako datuak oinarri hartuta, eta, hala denean, erakunde lotuek edo menpekoek onetsitako urteko kontuetako datuak oinarri hartuta ere bai, aurrez aurreko ekitaldiko datuak izan behar dira beti.
2. Zerbitzuen benetako kostua kalkulatzeko epeak eta irizpideak Bizkaiko Foru Aldundiak emandako foru-dekretu baten bidez arautuko dira.
3. Bizkaiko toki-erakundeek Bizkaiko Foru Aldundian finantza-tutoretzari dagokionez eskuduna den sailari jakinarazi behar diote zein den erakunde bakoitzak ematen duen zerbitzu bakoitzaren benetako kostua, sail horrek argitara ditzan; berri-emate hori erregelamendu bidez zehazten denaren arabera egin behar da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lehenengoa.

Arau hau indarrean jartzen denean zorrari buruzko helburua betetzen ez duten toki-erakundeek, udalbatzaren erabaki baten bidez, plan ekonomiko-finantzario bat onetsi beharko dute kapital biziaren bolumena txikitzeko, eta plan horrek bermatu behar du helburu hori sei urteko epean betekoa dela, gehienez ere.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehenengoa. Arauak emateko almena.

Ahalmena ematen zaio Diputatuen Kontseiluari eta, beharrezkoa bada, arlo honetan eskuduna den organoari, foru arau hau garatzeko beharrezkoak diren erregelamendu mailako arau-xedapen guztiak eman ditzan eta, zehatzago, Bizkaiko toki-erakundeek urteko aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzekoan bete behar dituzten arauak eman ditzan, arauon bidez bermatu dadin bete egingo direla aurrekontu-orekari eta finantza-iraunkortasunari buruzko araudiak defizita eta zor publikoa dela eta ezartzen dituen helburuak.

Bigarrena. Aldundiaren babes.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2012ko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak eta hura garatzeko araudiak informazioari bidaltzeari dagokionez ezartzen duten betebeharra Bizkaiko Foru Aldundiaren bidez beteko da, eta haren ardura izango da informazio hori administrazio eskudunari helaraztea.

Hirugarrena. Erabakiak hartzea finantza publikoen euskal kontseiluan.

Finantza Publikoen Euskal Kontseiluan ez badira hartu foru arau honetako 2., 3. eta 4. artikuluetan aipatzen diren erabakiak, Bizkaiko Foru Aldundiak izango du araua aplikatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko eskumena, Bizkaiko Finantzetako Lurralde Kontseiluan entzun ondoren.

Laugarrena. Udalkutxa funtsatik itzultzeko dauden saldoak.

Udal Finantzaketarako Foru Fondona-Udalkutxa behin betiko likidatzen eratorrirako Bizkaiko Foru Aldundiaren aldeko zorrak ez dira aintzat izango indarrean dauden kreditu eragiketen kapital biziaren bolumen osoak, abenduaren 16ko Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru-Arauaren 55. artikuluan aipatutakoak, kalkulatzeko. Ez dira konputatuko ere zor publikoaren helburua bete izana egiaztatzerakoan.

Bostgarrena. Toki korporazioen kideen ordainsarien eta asistentzien gehieneko mugak

1. Ondoko taula hori doituko zaie Bizkaiko Toki Korporazioen kideek ordainsari eta asistentziengatik jaso dezaketenen guztirako gehieneko muga (zerbitzu bereziei doakien egoeran diren karrerako funtzionarioei eskubide modura dagozkien hiru urtekoak salbuetsita), besteak beste, toki korporazioaren ezaugarriak eta korporazio biziaren kontuan hartuz:

Biztanleak	Erreferentzia
500.000 biztanletik gora (hiriburua zenbatu barik)	Eusko Jaurlaritzako sailburua - %5
300.001etik 500.000ra (hiriburua zenbatu barik)	Eusko Jaurlaritzako sailburua - %5
150.001etik 300.000ra	Eusko Jaurlaritzako sailburua - %5
75.001etik 150.000ra	Eusko Jaurlaritzako sailburua - %10
50.001etik 75.000ra	Eusko Jaurlaritzako sailburua - %10
20.001etik 50.000ra	Eusko Jaurlaritzako sailburua - %15
10.001etik 20.000ra	Eusko Jaurlaritzako zuzendaria
5.001etik 10.000ra	Eusko Jaurlaritzako zuzendaria - %10
1000tik 5.000ra	Eusko Jaurlaritzako zuzendaria - %25

2. Lurralde Historikoaren hiriburua aplikatu dakiogun gehieneko muga 90.000 eurokoa izango da (hiru urtekoak salbuetsita), eta Eusko Jaurlaritzako sailburuaren karguari dagokion ordainsariaren arabera eguneratuko da.

3. 1.000 biztanletik beherako Toki Korporazioen kideei dagokienez, salbuespen gisa, dedikazio partzialez egikaritu ahal izando dituzte beren karguak, tarterik baxuenari doakion mugaren gutxipen proportzionala aplikatuz.
4. «75.001etik 150.000era» arteko tarterako muga Eusko Jaurlaritzako sailburu baten ordainsaria - %5 izango da, baldin eta entitateak 100.000 biztanle baino gehiago baditu eta zor publikoaren helburu nagusia edo likidatutako azken ekitaldiko datuen arabera indarrean dagoen finantza-plan ekonomikoan ezarritako helburua betetzen badu.
5. «1.001etik 5.000era» arteko tarterako muga Eusko Jaurlaritzako sailburu baten ordainsaria - %15 izango da, baldin eta entitateak 2.000 biztanle baino gehiago baditu eta zor publikoaren helburu nagusia edo likidatutako azken ekitaldiko datuen arabera indarrean dagoen finantza-plan ekonomikoan ezarritako helburua betetzen badu.
6. Dedikazio partzialei aplika dakizkiekeen gehieneko mugak aurreko taulako muga egokiak toki erakundeak erabakitzen duen dedikazio-portzentajeari aplikatzearen emaitzakoak izango dira.
7. Lehenengo idatz-zatian ezarri diren mugak Eusko Jaurlaritzako karguen ordainsarien arabera eguneratuko dira, erreferentziaturik dauden gisan.

AZKEN XEDAPENA

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru arau hau.

Bilbon, 2013ko ekainaren 12an.

Batzar Nagusietako lehenengo idazkariak,

JON ANDONI ATUTXA SAINZ

Batzar Nagusietako Lehendakariak,

ANA MADARIAGA UGARTE